

## 1. Soziolinguistikaren eta hizkuntza politika eta plangintzaren oinarriak

### 4. jarduera: Fishmanen RLS Iruritan

#### Irakurgaiak:

- *Argi*ko artikulua: “Galdua zirudiena nola berreskuratu duten Iruritan”.
- Manterola & Berasategi (2011), "Hizkuntza gutxituen indarberritzea" [Eskuragarri Egela-ko “Irakurtzea komeni den materiala” atalean].

1. Sánchez Carrión “Txepetx”-ek orain dela 40 urte Iruritan deskribatu zuen euskararen egoera Fishmanen GIDS edo BAEN delakoaren ze mailatan kokatuko zenuke?

2. Orain 40 bat urteko Iruritan ze faktore antzeman ditzakezu hizkuntza ordezkapenaren atzean?

3. Iruritako kasuan, Fishmanen BAEN erabilia, ze mailatan kokatuko zenuke indarberritze prozesuaren hasiera?

4. Iruritako HINBEn eskolak izandako eragina ikusita, nola azalduko zenuke BAENeko 4.-5. mailen eta 6. mailaren arteko elkar-eragina?

5. BAEN eskalan aurrera/atzera egiteak ze inpaktu izan dezake hizkuntza baten corpusaren garapenean?

6. Iruritako kasu zehatza edota Euskal Herriko ikuspegi orokorragoa kontuan hartuta, zenbateraino dirudi baliagarria Fishmanen BAEN teoriak euskararen normalizazio prozesua azaltzeko?